



## **HITZARMENA, DIRULAGUNTZA IZENDUNA EMATEKO EUSKALTZAINDIARI, 2020. URTEAN CONVENIO PARA CONCESIÓN DE SUBVENCIÓN NOMINATIVA A EUSKALTZAINDIA EN 2020**

Iruñean, 2020ko ekainaren 24an,

### **ESKU-HARTZAILEAK:**

Alde batetik,

### **MARÍA GARCÍA-BARBERENA UNZU,**

Iruñeko Udalaren izenean eta haren ordezkari gisa, indarrean diren legeek eman dizkioten eskumenak erabilita,

eta, bestetik,

### **ANDRÉS MARÍA URRUTIA BADIOLA,**

NAN zenbakia [REDACTED] duelarik, Euskaltzaindiaren (aurrerantzean entitate onuraduna) izenean eta erakunde hori –zeinak IFK G-48091961 baitu– ordezkatuta, entitatearen lehendakaria den aldetik.

Bi aldeek gaitasun nahikoa aitortzen diote elkarri hitzarmen honetan adierazitakoa betetzeko, eta, horretarako, honako hau

En Pamplona, a 24 de junio de 2020,

### **INTERVIENEN:**

De una parte,

en nombre y representación del Ayuntamiento de Pamplona, en uso de las atribuciones que le confiere la legislación vigente,

y de otra parte,

con DNI [REDACTED], que interviene en nombre y representación de Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia (en adelante, entidad beneficiaria) con CIF nº G-48091961, en calidad de Presidente de la entidad.

Ambas partes se reconocen capacidad suficiente para obligarse en los términos del presente convenio, y a tal efecto,



### **ADIERAZTEN DUTE:**

Hitzarmen honen xedea da indarrean den Iruñeko Udalaren Aurrekontuan ageri den dirulaguntza izenduna bideratzea, eta xedatzea entitate onuradunak bere gain hartzen dituen baldintzak eta konpromisoak.

Iruñeko Udalaren Aurrekontu Orokorrean, aurtengo urtean indarra duen horretan, aurreikusita dago dirulaguntza izenduna ematea EUSKALTZAINDIARI.

Azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2 artikularekin bat, zuzenean eman ahalko dira toki-erakundeen aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak, hitzarmenetan eta dirulaguntza horien araubideetan ezarritakoarekin bat, eta lege horren 28. artikulua ezarritakoaren arabera hitzarmenak izanen dira dirulaguntza horiek bideratzeko ohiko tresnak.

Bestalde, Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 19. artikulua eta hurrengoek arautzen dituzte Udalaren aurrekontu orokorrean aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean emateko araubidea eta prozedura.

Aipatu xedapenetan ezarritakoarekin bat, bi aldeek adierazten dute hitzarmen honen edukiaren berri dutela, eta hura sinatuta hitzarmenetik eratorritako

### **EXPONEN:**

Que la finalidad del presente convenio es canalizar la subvención nominativa que figura en el vigente Presupuesto del Ayuntamiento de Pamplona, así como establecer las condiciones y compromisos que asume la entidad beneficiaria.

Que en el Presupuesto General del Ayuntamiento de Pamplona para el vigente año se ha previsto una subvención nominativa a favor de REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA – EUSKALTZAINDIA.

La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de subvenciones (LGS) dispone en su artículo 22.2 que podrán concederse de forma directa subvenciones previstas nominativamente en los presupuestos de las entidades locales, en los términos recogidos en los convenios y en la normativa reguladora de estas subvenciones, y en el artículo 28 establece que los convenios serán el instrumento habitual para canalizar estas subvenciones.

Por su parte, la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Pamplona, en sus artículos 19 y siguientes regula el régimen y procedimiento de concesión directa de las subvenciones previstas nominativamente en el presupuesto general municipal.

De conformidad con lo establecido en las citadas disposiciones, ambas partes declaran conocer el contenido de este convenio y mediante su firma aceptan las obligaciones y compromisos



betebehar eta konpromisoak onartzen dituztela, honako klausula hauekin bat:

### **KLAUSULAK:**

#### **LEHENA.- XEDEA**

Bi erakunde sinatzaileek, zeinak bere esparruan, interes bat eta bera daukate euskara normalizatu eta sustatzeko, eta hori dela-eta biek ala biek hartzen dute helburu gisa euskara normalizatu eta sustatzea Iruñean bizi diren pertsonen artean, hala hitzunen kopuruari nola hizkuntzaren erabileraren kalitateari dagokienez. Kontuan harturik bi erakundeek bat egiten dutela hala lan-esparruetan nola helburuetan, eta euskarak arreta berezia behar duela helburu horiek erdiesteko, komenigarritzat jotzen da bi erakundeen arteko harreman errazak eta egonkorak izatea, betiere elkarren arteko begirunea eta lankidetzaren oinarri hartuta.

Bestalde, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 1986/18 Foru Legeak, 3.3 artikuluan, Euskaltzaindia izendatzen du erakunde aholku-emaile ofizial, Foru Erkidegoan aplikatzekoak diren hizkuntza-arauak ezartzeko orduan.

Horregatik guztiagatik, hitzarmen honen xedea da Euskaltzaindiari dirulaguntza izenduna emateko zehaztapenak eta baldintzak ezartzea.

que del mismo se derivan, con sujeción a las siguientes

### **CLAÚSULAS:**

#### **PRIMERA.- OBJETO**

Las dos entidades firmantes, cada una en su ámbito, comparten el interés en la normalización y promoción del euskera, así como el objetivo común de normalizar y promocionar la lengua vasca entre las personas que habitan en Pamplona, tanto en lo que se refiere a la cifra de hablantes como a la calidad lingüística del uso que se hace de la lengua. Teniendo en cuenta la coincidencia en ámbitos de trabajo y objetivos, y la especial atención que requiere el euskera para lograrlos, se reconoce la conveniencia de que exista una relación fluida y estable entre las dos entidades firmantes de este Convenio, basada en el mutuo respeto y colaboración.

Por otra parte, la Ley Foral 18/1986 de 15 de diciembre del Euskera, en su art. 3.3. designa a la Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia como institución consultiva oficial a los efectos del establecimiento de las normas lingüísticas aplicables en la Comunidad Foral.

Por todo ello, el objeto del presente convenio es determinar los términos y condiciones de otorgamiento de la subvención nominativa a la Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia.



## **BIGARRENA.- AURREIKUSITAKO JARDUKETAK ETA ALDEEN KONPROMISOAK**

### **1.- Aurreikusitako jarduketak eta aldeek onartzen dituzten konpromisoak**

Honako hauek izanen dira aldeek garatu beharreko jarduketak eta onartutako konpromisoak:

Iruñeko Udalak hamabi mila euro (12.000 €) emanen dizkio Euskaltzaindiari, Udalaren Aurrekontu Orokorren 50/33501/482090 partidaren kargura, eta Euskaltzaindiak konpromisoa hartzen du kopuru hori hala hitzarmen hau betetzen nola haren bitartez lortu nahi diren helburuak gauzatzeko erabiltzeko, eta, berariaz, Euskaltzaindiak Iruñean duen egoitza edo ordezkaritza mantentzeko eta bertatik herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak emateko.

### **2.- Entitate onuradunaren betebeharrak**

Entitate onuradunaren betebeharrak orokorrak:

a) Dirulaguntzaren xede diren helburua bete, proiektua gauzatu, jarduera egin edo jokabideari heldzea.

b) Organo emailearen edo, kasuan-kasuan, entitate laguntzailearen aurrean justifikatzea baldintzak eta betekizunak bete direla, bai eta jarduera egin dela ere, eta

## **SEGUNDA.- ACTUACIONES PREVISTAS Y COMPROMISOS DE LAS PARTES.**

### **1.- Actuaciones previstas y compromisos asumidos por las partes**

Las actuaciones a desarrollar y los compromisos asumidos por las partes serán los que figuran a continuación:

El Ayuntamiento de Pamplona abonará a la Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia la cantidad de doce mil euros (12.000 €) con cargo a la partida 50/33501/482090 del Presupuesto General Municipal, cantidad que la institución receptora se compromete a destinar al cumplimiento del Convenio y a la consecución de los fines que con él se pretenden, y, de forma específica, al mantenimiento de la sede o delegación de la Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia en Pamplona y a la prestación de los servicios que desde ella se ofrecen a la ciudadanía.

### **2.- Obligaciones de la entidad beneficiaria**

Obligaciones generales de la entidad beneficiaria:

a) Cumplir el objetivo, ejecutar el proyecto, realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de la subvención.

b) Justificar ante el órgano concedente o la entidad colaboradora, en su caso, el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la realización de la actividad y el cumplimiento de la



dirulaguntza zertarako eman eta helburu hori bete dela.

c) Men egitea dagokion organo emaileak edo entitate laguntzaileak egin beharreko egiaztapen-jarduketei, bai eta kontrol-organo eskudunek finantzaketa egiaztatzekeo zein kontrolatzeko egiten ahal dituzten beste guztiei ere, betiere jarduketa horien ondorioz eskatzen dizkieten argibideak oro eman beharko dituztelarik, halakoak udal-agiritegietan jasota egon ezean.

d) Dirulaguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik lortuz gero, horren berri ematea organo emaileari edo entitate laguntzaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, hartutako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

e) Egiaztatzea, dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena eman baino lehen, egunean dituela hala tributu-betebeharrak nola Gizarte Segurantzarekikoak. Iruñeko Udalak ofizios egiaztatuko du entitateak egunean dituela berarekiko tributu-betebeharrak.

f) Kontabilitate-liburuak, erregistro eginbidetuak eta gainerako agiriak edukitzea, behar bezala ikuskatuta, entitate onuradunari kasuan-kasuan aplikatzen ahal zaizkion merkataritzako legeek eta lege sektorialek ezarritakoarekin bat, bai eta hitzarmen honek egiaztapen- eta kontrol-

finalidad que determinen la concesión o disfrute de la subvención.

c) Someterse a las actuaciones de comprobación, a efectuar por el órgano concedente o la entidad colaboradora, en su caso, así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control competentes, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores, que no obre en los archivos municipales.

d) Comunicar al órgano concedente o a la entidad colaboradora la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas. Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.

e) Acreditar, con anterioridad a dictarse la propuesta de resolución de concesión, que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social. La comprobación de hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias con el Ayuntamiento de Pamplona se efectuará de oficio.

f) Disponer de los libros contables, registros diligenciados y demás documentos debidamente auditados en los términos exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable a la entidad beneficiaria en cada caso, así como cuantos estados contables y registros específicos pudieran ser



eskumenak modu egokian gauzatuko direla bermatzeko galdatzen ahal dituen egoera-orriak eta berariazko erregistroak ere.

g) Gordetzea jasotako funtsak zertan erabili diren egiaztatzen duten agiriak –agiri elektronikoak barne–, egiaztapen eta kontrol jarduketan xedea izan daitezkeen neurrian.

h) Behar bezalako publizitatea egitea, dirulaguntza zer programa, jarduera, inbertsio edo jarduketatarako jaso eta horiek Iruñeko Udalak finantzatu dituela jakitera emate aldera.

Hona entitate onuradunak hartu behar dituen zabalkunde–neurriak:

– Iruñeko Udalaren irudi instituzionala eranstea.

– Legendak karteletan, material inprimatuetan, bitarteko elektronikoetan, ikus–entzunezkoetan eta abarretan.

– Aipamenak hedabideetan.

i) Jasotako funtsak itzultzea, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak eta, hala behar izatera, hitzarmen honek hori egiteko zer kasu ezarri eta halakoetan.

Entitate onuradunaren berariazko betebeharrak:

– Euskaltzaindia Iruñeko Udalari aholkularitza emateko zereginetan arituko da, euskararekin zerikusirik duten hizkuntza–aferez bezainbatean.

– Euskaltzaindiak hizkuntzaren inguruko zerbitzuak emanen ditu –

exigidos por este convenio, con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.

g) Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos –incluidos los documentos electrónicos–, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control.

h) Dar la adecuada publicidad de que los programas, actividades, inversiones o actuaciones de cualquier tipo que sean objeto de subvención son financiadas por el Ayuntamiento Pamplona.

Medidas de difusión que debe adoptar la entidad beneficiaria:

– Inclusión de la imagen institucional del Ayuntamiento de Pamplona.

– Leyendas en carteles, materiales impresos, medios electrónicos o audiovisuales, etc.

– Menciones en medios de comunicación.

i) Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos contemplados en la Ordenanza General de Subvenciones y, en su caso, en este convenio.

Obligaciones específicas de la entidad beneficiaria:

– La Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia ejercerá las labores de asesoramiento que el Ayuntamiento de Pamplona le demande en cuestiones de materia lingüística relativas al euskera.

– La Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia facilitará, tanto



hala bere bulego nagusietatik nola Iruñean daukan Nafarroako ordezkarietatik– herritarrek halakoak eskatu ahala: argibideak eta hizkuntza-aholkuak, txostenak eta ziurtagiriak.

- Halaber, kultur hedapeneko jarduerak bultzatuko ditu, ikastaroak, hitzaldiak eta abar, kasuan-kasuko erakundeekin eta elkarteekin elkarlanean arituta, eta publizitate egokia eginen du Iruñeko Udalaren finantzaketaren berri emate aldera.

- Euskaltzaindiak sustatzen dituen argitalpen, aldizkari edo edizio bakoitzaren hamaika (11) ale emanen dizkio Iruñeko Udalari, betiere halakoak Hitzarmen honen esparruari dagozkion gaiei buruzkoak baldin badira. Argitalpen horien hartzaileak honako hauek izanen dira: batetik, Iruñeko udal-liburutegi publikoak (10 ale), eta, bestetik, Udaleko Euskara Zerbitzua (ale bat).

### **3.- Dirulaguntzen xede izan daitezkeen jarduerak egiteko epea**

Diruz laguntzekoak diren zereginak, jarduerak eta gastuak oro 2020ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarte egin behar dira.

### **4.- Proiektuan aldaketak egiteko aukera**

Ez dago aukerarik proiektua aldatzeko.

desde sus oficinas generales como desde la propia Delegación de Navarra en Pamplona, los servicios de información y asesoramiento lingüístico así como de expedición de informes y certificaciones que sean requeridos por la ciudadanía.

- Así mismo, impulsará actividades de difusión cultural, cursos, conferencias, etcétera, en colaboración con las entidades e instituciones correspondientes, y dará la adecuada publicidad sobre la financiación por parte del Ayuntamiento de Pamplona.

- La Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia entregará al Ayuntamiento de Pamplona once ejemplares (11) de las publicaciones, revistas y diferentes ediciones que promueva la entidad y versen sobre temas incluidos en el ámbito del presente Convenio. Dichas publicaciones se destinarán a las bibliotecas públicas municipales de Pamplona (10 ejemplares) y al Servicio de Euskera del Ayuntamiento (1 ejemplar).

### **3.- Plazo de realización de las actividades subvencionables**

Todas las labores, actividades y gastos subvencionables deberán ser realizados entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de 2020.

### **4.- Posibilidad de introducir modificaciones en el proyecto**

No existe posibilidad de modificar el proyecto.



### **5.- Dirulaguntzen xede izan daitezkeen gastuen zehaztapena**

Dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko dira dirulaguntzaren xede den jarduerarekin bat datozenak, baldin eta bigarren klausularen 3. puntuan adierazitako epea bukatu baino lehen egiten badira, eta, betiere, men egiten badiote Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29. artikuluan xedatutakoari.

Dirulaguntzaren xede diren gastuetan, kostua ezin izanen da inoiz izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Gastu hauek joko dira diruz laguntzekotzat:

- Euskaltzaindiaren Iruñeko egoitzan edo ordezkartzan herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak emateko beharrezkoak diren langileen soldata-kostuak eta Gizarte Segurantzakoak.

- Zeharkako gastuak, Euskaltzaindiaren Iruñeko egoitza mantentzearekin zerikusia dutenak: lokalaren alokairua, bulegoko materiala, posta, elektrizitatea, telefonoa, gasa, energia, Internet...

- Hedapen-gastuak, publizitatekoak, prentsakoak eta abar, baldin eta Ordezkaritzak egin eta dirulaguntzaren xede diren jardueri eta zerbitzuei badagozkie.

Egindako gastutzat joko dira hitzarmen honen bosgarren klausulako 2. atalean ezarritako justifikazio-aldia

### **5.- Determinación de los gastos subvencionables**

Se considerarán gastos subvencionables aquellos que respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada y se realicen con anterioridad al fin del periodo señalado en el apartado 3 de la cláusula segunda de este convenio, y sean conformes a lo establecido en el artículo 29 de la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Pamplona.

En ningún caso el coste de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor de mercado.

Se considerarán gastos subvencionables:

- Costes salariales y Seguridad Social del personal necesario en la sede o delegación de la Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia en Pamplona para la prestación de los servicios que desde ella se ofrecen a la ciudadanía.

- Gastos indirectos asociados al mantenimiento de la sede de la Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia en Pamplona: alquiler del local, material de oficina, correo, electricidad, teléfonos, gas, energía, Internet...

- Gastos de difusión, publicidad, prensa, etc.. relativos a la prestación de los servicios y realización de las actividades objeto de subvención por parte de la Delegación.

Se considerará gasto realizado el que ha sido efectivamente pagado con anterioridad a la finalización del periodo de



amaitu baino lehen benetan ordaindutakoak.

**HIRUGARRENA.- DIRULAGUNTZA ORDAINTZEKO AURREKONTU-KREDITUA, DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA, HALA BADAGOKIO, PROIEKTUA FINANTZATZEKO ENTITATEAK EZARRI BEHARREKO FUNTSEN EHUNEKOA**

1.- Dirulaguntzaren zenbatekoa – Importe de la subvención: 12.000 €.

2.- Aurrekontu-partida – Partida presupuestaria: 50/33501/482090.

3.- Ez da ezartzen bete beharreko ehunekorik diruz lagundutako jarduerak entitateak beraren funtsekin ordaintzeko.

**LAUGARRENA.- ENTITATE ONURADUNAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

Entitate onuradunaren nortasuna egiaztatzen duten agiriak eta haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak:

- Entitate onuradunaren estatutuak
- Entitatearen legezko ordezkariaren NANA.

Baldin eta galdatutako agiriak Iruñeko Udalaren edo haren mendeko erakunde autonomoren baten eskuetan badaude, haien ordezkariaren adierazpen bat aurkeztu ahal da indarrean direla egiaztatzeko, eta bertan adieraziko da noiz eta zer organo edo bulegotan aurkeztu ziren edo, hala badagokie, nor eman zituen edo non dauden jasota.

- Erantzukizunpeko adierazpena, non adieraziko baita pertsona edo

justificación que se determina en el apartado 2 de la cláusula quinta de este convenio.

**TERCERA.- CRÉDITO PRESUPUESTARIO AL QUE SE IMPUTA LA SUBVENCIÓN, IMPORTE DE LA SUBVENCIÓN Y, EN SU CASO, INDICACIÓN DEL PORCENTAJE DE FINANCIACIÓN PROPIA DEL PRESUPUESTO DEL PROYECTO**

3. No se establece porcentaje obligatorio de financiación de las actividades subvencionadas con fondos propios de la entidad.

**CUARTA.- DOCUMENTACIÓN A APORTAR POR LA ENTIDAD BENEFICIARIA**

Documentos acreditativos de la personalidad de la entidad beneficiaria y de la representación de quien actúa en su nombre:

- Estatutos de la entidad beneficiaria
- DNI del representante legal de la entidad.

Si los documentos exigidos ya estuviesen en poder del Ayuntamiento de Pamplona o sus Organismos Autónomos, podrán sustituirse por una declaración responsable sobre su vigencia y en la que se indique la fecha y el órgano o dependencia en que fueron presentados o, en su caso, emitidos, o en el que obran.

- Declaración responsable en la que se haga constar que la entidad



entitate onuradunak betetzen dituela onuradun izateko deialdi honetan galdatutako baldintzak, eta ez duela ukitzen onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikulua aipatzen dituen debekuzioetako bakar batek ere.

- Egiaztapena, ziurtatzeko entitate onuradunak zergei eta Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak eguneratuak dituela, eskatzaileak aurkeztu beharreko erantzukizunpeko adierazpen baten bitartez egitekoa. Kasu horretan, dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin aurretik, interesdunari eskatu beharko zaio aurkez ditzala, 15 eguneko gehieneko epean, adierazpenean jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzen duten agiriak (administrazio eskudunek emanak).

Udalak ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela berarekiko tributubetebeharrak, eta egiaztapen hori dagokion eginbidean jasoko du.

Udalak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluekin bat, ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela administrazio eskudunarekiko betebeharrak, eta egiaztapen hori dagokion eginbidean jasoko du, betiere dirulaguntza emateko ebazpen-

beneficiaria cumple los requisitos exigidos para obtener la condición de beneficiaria y que no se halla incurso en ninguna causa de prohibición para obtener tal condición de beneficiario de las enumeradas en el artículo 10 de la Ordenanza General de Subvenciones.

- Acreditación de que la entidad beneficiaria se encuentra al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social, que se realizará mediante la aportación de una declaración responsable otorgada por la persona solicitante. En este caso, con anterioridad a la propuesta de resolución de concesión de la subvención se deberá requerir a la persona interesada la presentación de los certificados emitidos por las administraciones competentes que acrediten la realidad de los datos contenidos en la citada declaración, en un plazo no superior a 15 días.

El Ayuntamiento comprobará de oficio que el interesado se encuentra al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias con esta administración, haciendo constar dicha circunstancia mediante la oportuna diligencia.

El Ayuntamiento, de conformidad con el artículo 28.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del procedimiento administrativo común de las administraciones públicas, comprobará de oficio que la persona interesada se encuentra al corriente en el cumplimiento de estas obligaciones con la administración competente haciendo constar dicha circunstancia mediante la oportuna diligencia con anterioridad a la



proposamena egin baino lehen. Salbuespenez, eta Iruñeko Udalak ezin izanen balitu agiriok eskuratu, interesdunari eskatzen ahalko zaio aurkez ditzala.

Interesduna Udalak egiaztapen horiek ofizioz egitearen aurka agertuz gero, administrazio eskudunek emandako egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu dirulaguntza emateko ebazpena onetsi baino lehen, aurkeztutako adierazpenean jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzeko.

- Aitorpen bat, non adieraziko baita beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribaturi helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, bertan zehaztuta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak.

- Memoria bat, dirulaguntza zertarako eman eta proiektu, ekintza, jarrera, jarduera edo programa hori deskribatzen duena.

## **BOSGARRENA.- JUSTIFIKATZEKO ERAK ETA BEHAR DIREN AGIRIAK AURKEZTEKO EPEA**

### **1.- Justifikatzeko modalitatea**

Dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak eta lortu beharreko helburuak bete direla era honetan justifikatuko da:

- Justifikazio-kontu erraztua, 887/2006 Errege Dekretuaren 75. artikuluan ezarritakoarekin bat (38/2003 Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren

propuesta de resolución de concesión de la subvención. Excepcionalmente, si el Ayuntamiento de Pamplona no pudiera recabar estos documentos, podrán solicitar a la persona interesada su aportación.

En el caso de que la persona interesada manifestara su oposición a que el Ayuntamiento de Pamplona haga estas comprobaciones de oficio deberá aportar los certificados emitidos por las administraciones competentes que acrediten la realidad de los datos contenidos en la citada declaración, antes de la resolución de la concesión de la subvención.

- Declaración de las solicitudes de subvención para el mismo objeto solicitadas y/o percibidas de otras administraciones, entidades o personas públicas o privadas, detallando en la misma la cantidad solicitada, nombre de la entidad y cantidad obtenida.

- Memoria con la descripción del proyecto, acción, conducta, actividad o programa para el que se concede subvención.

## **QUINTA.- FORMA DE JUSTIFICACIÓN Y PLAZO DE PRESENTACIÓN DE LA CORRESPONDIENTE DOCUMENTACIÓN**

### **1.- Modalidad de justificación**

La justificación del cumplimiento de las condiciones impuestas y de la consecución de los objetivos previstos en el acto de concesión de la subvención revestirá la forma de:

- Cuenta justificativa simplificada, de conformidad con lo establecido en el artículo 75 del Real Decreto 887/2006 (Reglamento de la Ley 38/2003, General de



Erregelamendua), non jasota agertuko baitira honako gai hauek:

a) Jarduketa-memoria bat, dirulaguntza ematean ezarritako betekizunak bete direla justifikatzeko, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita.

b) Euskaltzaindiaren Iruñeko egoitza edo ordezkari mantentzeari eta bertatik herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak emateari dagozkien gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, bertan adierazita hartzekodunen eta agirien identifikazioa, zenbatekoak, jaulkitzeko datak eta, halakorik bada, ordaintzekoak.

c) Jarduera finantzatu duten beste diru-sarreraren edo dirulaguntzen xehakapena (haien zenbatekoa eta jatorria adierazita), edo, halakorik ezean, berariazko adierazpen bat, halakorik izan ez dela adierazita.

d) Erabili gabeko geldikinik izanez gero, ordainketa-gutuna, geldikinak eta haiei dagozkien berandutze-interesak itzultzekoa.

Ondorengo izapide presentzial bat ezarriko da, diruz lagundutako gastu eta ordainketen kontrol-sistema honen arabera:

- Organo kudeatzaileak –behin entitate onuradunak gastuen justifikazioan adierazi dituen gastuen zerrenda aztertuta– eskaera eginen dio entitate onuradunari aurkez ditzan – errekerimendua jaso eta, gehienez ere, hamar (10) egunean– organo kudeatzaileak nahi bezala hautatuko dituen jatorrizko agiriak eta haien kopia arruntak –administrazio–espedientean

Subvenciones), donde constarán los siguientes extremos:

a) Memoria de actuación, justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.

b) Relación clasificada de gastos e inversiones relativos al mantenimiento de la sede o delegación de la Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia en Pamplona y a la prestación del servicio que en ella se ofrece a la ciudadanía, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago.

c) Detalle de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad (indicando importe y procedencia) o, en su caso, declaración expresa de que no han existido tales.

d) En el supuesto de remanentes no aplicados, carta de pago de reintegro de dichos remanentes, así como de los intereses que se deriven de ellos.

Se establecerá un trámite presencial posterior con el siguiente sistema de control de los gastos y pagos subvencionados:

- El órgano gestor, analizando la relación de gastos que la entidad beneficiaria haya hecho constar en su justificación de gastos, solicitará a la entidad beneficiaria que en el plazo máximo de 10 días desde que reciba el requerimiento le presente original y copia simple, y al efecto de dejar constancia en el expediente administrativo, de los documentos que elija el órgano gestor



jasota uzte aldera-, zeinek, gutxienez, egindako gastuak, eta, kasuan-kasuan, ordainketak egiaztatzen dituzten agiri guztien % 20 izan beharko baitute, eta ahalbidetu beharko baitute, gutxienez, diruz lagundu eta egindako gastu osoaren % 30 egiaztatzea.

- Organo kudeatzaileak adierazita utzi beharko du administrazio-espeditan egiaztapen hori egin duela, bai eta horren emaitza ere.

- Baldin eta, organo kudeatzaileak jatorrizko zer agiri hautatu eta horiek erakutsita, desadostasun bat badago, eta desadostasunak badirau hura zuzentzeko errekerimendua egin eta gero, gastua eta gastuaren ordainketa justifikatzeko jatorrizko dokumentazioa eskatuko da, eta, behar izatera, galdatu ahalko da dirulaguntzaren bidezkoa den kopurua itzultzeko, kopuru horri gehituko zaizkiolarik dagozkion interesak, eta, behar izatera, legez ezar litezkeen zehapenak ere.

Balorazio-txosten bat eman beharko da Udaleko teknikari eskudun batek sinatuta, non espresuki adierazita geldituko baita guztiz bete dela dirulaguntzaren xedea, edo, bestela, zein diren justifikazioa onestea eragozten duten akatsak edo inguruabarrak.

discrecionalmente y que acrediten el gasto y, en su caso, el pago de, al menos, el 20% de los documentos justificativos de los gastos subvencionados y su pago en una cuantía que permita comprobar como mínimo un 30% del gasto subvencionado y realizado.

- El órgano gestor deberá dejar constancia en el expediente administrativo de que ha hecho esa comprobación y el resultado de la misma.

- En el caso de que, tras la exhibición de los originales elegidos por el órgano gestor se compruebe una sola disconformidad y la disconformidad se mantenga tras el correspondiente requerimiento para la subsanación, se solicitará la exhibición original de toda la documentación justificativa del gasto y del pago del gasto y, en su caso, se procederá a exigir el reintegro de la subvención en la cuantía que proceda, incrementado con los correspondientes intereses e imposición, en su caso, de las sanciones que pudieran ser legalmente imponibles.

Se emitirá informe de valoración suscrito por un técnico municipal competente, en el que se ponga de manifiesto expresamente el cumplimiento total del objeto de la subvención, o aquellas deficiencias o circunstancias que imposibiliten la aprobación de la justificación.



## **2.- Justifikazioa aurkezteko epemuga**

Justifikazioa 2021eko urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztu behar da.

### **SEIGARRENA.- HITZARMENAREN INDARRALDIA.**

Hitzarmen honek indarra izanen du noiz sinatzen den eta egun horretatik diruz lagundutako proiektua erabat justifikatu arte, hitzarmen honetan eta aplikagarri diren gainerako arauetan xedatutakoarekin bat. Hala ere, adierazi behar da finantzaketak 2020ko proiektuan egindako jarduerak oro hartuko dituela (urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte).

### **ZAZPIGARRENA.- DIRULAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA.**

Udalaren dirulaguntza jasotzea BATERAGARRIA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izango, berez edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, dirulaguntza horien xedea den jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatuko balitz, bidezkoa izango da kostuaren gaineratik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

## **2.- Plazo de rendición de la justificación**

La justificación deberá ser presentada antes del 31 de enero de 2021.

### **SEXTA.- PLAZO DE VIGENCIA DEL CONVENIO.**

El presente Convenio tendrá vigencia desde el día de su firma, y se extenderá hasta la completa justificación de las actividades subvencionadas, de conformidad con lo dispuesto en el presente convenio y resto de normativa aplicable. Si bien debe indicarse que la financiación abarca las actividades del proyecto realizadas durante el año 2020 (del 1 de enero hasta el 31 de diciembre).

### **SÉPTIMA.- COMPATIBILIDAD E INCOMPATIBILIDAD DE LA SUBVENCIÓN.**

La percepción de la subvención municipal es COMPATIBLE con la percepción de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administración, entidad o persona.

El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada. En el supuesto de que ello sucediera, procederá el reintegro del exceso obtenido, así como la exigencia del interés de demora correspondiente.



Dirulaguntzaren xede diren jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta betiere, eskuratutako funtsak zertan erabili diren justifikatu baino lehen.

Dirulaguntza emateko aintzat hartu diren baldintzak aldatzen badira, eta, edozein kasutan, hitzarmen honetan baimendutako kasuetatik at beste diru-iturri batzuk eskuratzen badira, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzen ahalko da.

#### **ZORTZIGARRENA.- AZPIKONTRATATZEA.**

Ez dago azpikontratatzeko aukerarik.

Entitate onuradunak inola ere ezin izango du hitzarmenik egin Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30.7 artikuluan zehazten diren pertsona eta entitateekin, dirulaguntzaren xede diren jarduerak osorik edo zati batean egiteko.

#### **BEDERATZIGARRENA.- ORDAINKETA.**

##### **1.- Nola ordaindu**

Ordainketa konturakoa izanen da, eta aurreratua.

Iruñeko Udalak hitzartutako kopuruaren % 100 ordainduko dio entitate

La persona o entidad beneficiaria deberá comunicar al órgano concedente la solicitud u obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien la actividad subvencionada. Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención y, en todo caso, la obtención concurrente de otras aportaciones fuera de los casos permitidos en este convenio, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión.

#### **OCTAVA.- SUBCONTRATACIÓN.**

No existe posibilidad de subcontratación.

En ningún caso podrá concertarse por la entidad beneficiaria la ejecución total o parcial de las actividades subvencionadas con las personas o entidades a las que se refiere el artículo 30.7 de la Ordenanza General de Subvenciones.

#### **NOVENA.- PAGO.**

##### **1.- Sistema de pago**

El pago será a cuenta y anticipado.

El Ayuntamiento de Pamplona abonará a la entidad beneficiaria el



onuradunari ordainketa aurreratu gisa, gehienez ere hilabeteko epean, hitzarmena noiz sinatzen den eta hortik aitzina.

## **2. Bermeen eraketa**

Ez da eratzen bermerik.

### **HAMARGARRENA.- JARRAIPEN- MEKANISMOAK, HITZARMENA BETETZEN DELA EGIAZTATZE ALDERA**

Iruñeko Udaleko Euskara Zerbitzuko teknikariek egingen dute jarraipena Hitzarmen hau betetzen dela egiaztatze aldera.

### **HAMAİKAGARRENA.- DIRUA ITZULARAZTEA**

Zilegi izanen da hala jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, nola berandutze-interesak galdatzea –dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean edo, halakorik balitz, hitzarmen honetan berariaz aurreikusi diren itzularazteko arazoietako batek ukitzen badu onuraduna.

### **HAMABIGARRENA.- KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK**

Iruñeko Udalak Hitzarmen honetan parte hartzeak hitzarmenean zer konpromiso onartu eta horiek besterik ez dio ekarriko.

100% de la cantidad convenida como pago anticipado en el plazo máximo de un mes desde la firma del convenio.

## **2. Constitución de garantías**

No se constituyen garantías.

### **DÉCIMA.- MECANISMOS DE SEGUIMIENTO DE LA EJECUCIÓN DEL CONVENIO**

El personal técnico del Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Pamplona será quien se encargue de realizar el seguimiento sobre la ejecución de este Convenio.

### **UNDÉCIMA.- REINTEGRO**

Procederá el reintegro total o parcial de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora correspondiente desde el momento del pago de la subvención, hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro, cuando concurra alguna de las causas de reintegro previstas en la Ordenanza general de subvenciones, en la Ley General de Subvenciones o, en su caso, alguna de las específicas previstas en este Convenio.

### **DUODÉCIMA.- OTRAS CONSIDERACIONES**

La participación del Ayuntamiento de Pamplona en el presente Convenio no supondrá la adquisición de más compromisos que los estipulados en el mismo.



## **HAMAHIRUGARRENA.- HITZARMENAREN ADMINISTRAZIO- IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA**

Hitzarmen hau honako hauek arautuko dute: Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean jasotako aginduak, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legea eta aplikagarriak diren administrazio-zuzenbideko gainerako arauak.

Hitzarmen honek administrazio-izaera dauka, eta jarraipen-batzordeak ez baditu konpontzen Hitzarmenaren interpretazioaren, aplikazioaren eta ondorioen inguruan sor daitezkeen auziak, Administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenari zuzenduko zaizkio.

Eta gorago jasotako guztiarekin adostasuna erakuste aldera, alde guztiek sinatzen dute agiri hau, goian adierazitako lekuan eta datan.

IRUÑEKO UDALAREN IZENEAN  
POR EL AYUNTAMIENTO DE PAMPLONA,

*MARIA GARCÍA-BARBERENA UNZU*

## **DECIMOTERCERA.- CARÁCTER ADMINISTRATIVO DEL CONVENIO Y RÉGIMEN JURÍDICO**

El presente Convenio se registrará por las prescripciones contenidas en la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Pamplona, por la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y demás normas de derecho administrativo que resulten de aplicación.

Este convenio tiene naturaleza administrativa, las cuestiones que pudieran suscitarse sobre su interpretación, aplicación y efectos que no queden solventadas por la comisión de seguimiento serán sometidas al orden jurisdiccional contencioso-administrativo.

Y en prueba de conformidad con todo cuanto antecede, firman este documento todas las partes, en el lugar y fecha arriba indicados.

EUSKALTZAINDIAREN IZENEAN  
POR LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA –  
EUSKALTZAINDIA,

*ANDRÉS MARÍA URRUTIA BADIOLA*